

Marjaba



IRATI ELORRIETA
IDAZLEA



PAULA ESTÉVEZ

Badirudi ez dagoela, etxetik irtetean eta etxera bueltatzean topatzen dituzun pertsonekin, agurtzeaz gain, esaldi pare bat trukatzea bezain gauza hutsalagorik. Errakuntza da hori. Ingu-ruan bizi direnak ezagutzeak, pixka bat ezagutzeak, balioa gehitzen dio eguneroko bizitzari. Kontaktu labur horrek, azaleko hartueman horrek bizitza alaitzen du. Seguruenez zoriontsuago dira harreman mota horretarako erraztasuna duten pertsonak. (Beti ere beste sakontasun baterako ezgaituak ez badaude).

Nik ez dut erraztasun hori eta, hala ere (edo horregatik), asko baloratzen ditut etxeko atarian, eskaileretan, (edo metroan, supermerkatuko lerroan) esaten diren esaldi horiek lantzean behin ateratzen dituzten txinpartak. Bideabar esandako komentario batean deskubritu dutun izaera bitxia, komunean izan dezakezun zerbait... Oro har, elkarren ondoan bizi garelako bata besteari buruz zerbait jakiteko premiari erantzuten dion bulkadari erantzuten diote.

Batzuetan (nahi baino gehiagotan) amildegi bat agertzen da izan nahiko genukeenaren eta garenaren artean. Hara hor fikzioa sortzeko arrazoietakoa bat, bide batez esanda. Asteak (zer diot as-

teak, hilabeteak) daramatzat gure erai-kinen etxabeen bizi den gizonari egun on edo kaixo baino gehiago esateko ezgai. Nire defentsarako kontatu behar dut gizon hori patioan ikusten hasi ginenean ezin genuela jakin etxabeen bizi zenik. Izan ere, apartamentu hori elkarte islamiar batek erabiltzen du bilerak egiteko (edo otoitz egiteko, edo dena delakoa, hori ere ez dut inoiz galdetu). Elkarteko arduraduna oso gizon lagunkoia da; beti galdetzen dit semeez, jaioterriaz... Kontua da, hasiera batean ez genuela pentsatu patioan sarritan topatzen genuen gizon gaztea bertan bizi zenik. Larruzko txupa beltza jantzita, zigarro bat bestearen atzetik erretzen ikusten genuen, telefonoz hitz egiten (arabieraz?). Bera telefono bidezko solasaldian murgilduta egoten zen arren, beti-beti agurtzen nuen nik. Egia da baldintzak ez zirela berbetan hasteko modukoak.

Orain badakigu bertan bizi dena. Patiora ematen duten bi leihoak parez pare zabalik egoten dira goizetan. Oztopo asko topa ditzaket nahiko nukeen lehen kontaktu adiskidetsua sailhesteko: lehenengo zailtasuna beti da hizkuntza. Gutxiago kostatzen zait nire jatorrizko bi hizkuntzetako batean ezezagun bati

lehen elkarrizketa-amua botatzea. Errazena litzatekeena esateko (...berria zara hemen?) beranduegi da. Ezin dugunez jakin noiztik dagoen hemen, ezta bizitzen egoteko baimen ofizialik duen ere, kontuz ibili beharreko gaia iruditzen zait. Ez ote du pentsatuko bere kontuetan sudurra sartu nahian nabilela! Gainera ni emakumea naiz eta, zer irudituko zaio nik hartzea inizatiba? (Bestalde, nola hartuko du berak?). Atea zabalik sostengatzen diodanean ere, ezeroso jartzen dudala iruditzen zait.

Badakit nire buruak planteatzen dituen zailtasunak, saiakerarik egiten ez dudanean, nire buruan soilik dau dela. Eta lehen saiakera hori egitea dela buruan ditudan kontrastatzeko dagoen bide bakarra. Bitartean, beste norbait ibili da ni baino azkarrago eta enteratu naiz ez duela alemanez ez ingelesez hitz egiten. *Français?* Horixe eskaini niezaioke, noizbait zerbait behar du, frantsesez moldatzen naizela esatea. Azken batean, pentsatzen dudanean gauzen artean humanoena dena (traba baino egiten ez duten estereotipo eta aurreiritzi merkeez harago doana) zera da: leku batera heldu (berri) denari ongi etorria denaren sentsazioa izatea gustatzen zaiola. ●